

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRONGO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2020ko lehenengo seihilekoko ordainagiriak borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa, 2020ko lehenengo seihilekoko, ordaindu behar dutenen errolda gertatu da, baita 2020ko azaroaren 20an onetsi ere. Hortaz, errolda hori jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera kontatuta, interesa dutenek hura aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesa dutenek administrazio batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espediente, baina, alde aurretik administrazio batzarreko lehendakariari jakinarazi behar zaio, aretoa irekitzeko eguna eta ordua finkatzeko.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikularen 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera; dena den, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak administrazio batzarreko errejidore-lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik adierazitako epean barruan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2021eko martxoaren 1etik apirilaren 30era artekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2021eko martxoaren 5ean kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Administrazio batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez duten zergadunei beren zerga egoitzara bidaliko zaie zor duten zenbatekoa ordaintzeko behar duten agiria.

Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Barron, 2021eko urtarrilaren 29a

Errejidore-lehendakaria

ANTONIO FERNÁNDEZ DE PALOMARES LAZCANO